

IRABAZ-ITURRIAK

Proiektuaren irabaz-iturriak, nagusiki konpostontzien salmentatik lortuko ditugu. Honako atal hauen bidez zehaztuko ditugu gure irabaz-iturri nagusiak:

- Ikastetxe publikoetan, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza sailarekin kontratua egingo dugunez, hori sinatu eta gero, prezio dinamikoa ezarriko dugu. Multzoka salduko dugu, hau da, zenbat eta ale gehiago erosi, orduan eta diru gehiago aurreztuko du Eusko Jaurlaritzak. Bolumenaren arabera prezioa izango da: prezioa aldatu egingo da, erositako kopuruaren arabera. Zenbat eta gehiago erosi, produktua edo zerbitzua orduan eta merkeagoa izango da.
- Itunpeko ikastetxeekin ezarritako prezio mota, prezio dinamikoa izango da, eskaintzaren arabera aldatuko da. Prezioa adostuko dugu. Eskolaren arabera aldakorra izango da. Denbora errealeko merkatu mota aukeratuko dugu: eskaintza eta eskaeraren legearen arabera finkatuz prezioa.

Irabaz-iturrien ehunekoei dagokienez, konpostontziak saltzearen bidez %98,2 lortuko dugu. Gainerako %1,8, arestian aipatutako ongarri soberakinak inguruko baserritarrei salduz lortuko dugu. Arestian aipatu bezala, ehuneko oso baxua da gasolinan gastatutakoa estaltzeko prezioan salduko diegulako konpost hori.

Gure proiektua abian jartzeko egingo dugun hasierako inbertsioak 140.000€-koa izango da. Hortaz, bakoitzak 35.000€-ko inbertsioa egin behar izango du. Ugazabotako bik, kreditu bat eskatuko diogu "Kutxabank" bankuari. Beste ugazaba batek, aurreztutako dirua erabiliko du. Azkenak, familiari eskatuko dio kreditu bat interesik ordaindu behar ez izateko.

Irabaz-iturriak

